

## **FITXA: 253 - ARABA - 2026ko dirulaguntzetarako deialdia, gazteentzako jarduerak egiten dituzten toki erakundeentzako.**

**Nori zuzendua:** Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeak udalak, Vitoria-Gasteizko Udala izan ezik, kuadrillak eta kontzejuak.

**Deialdia:** ALHAO - Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala **Deialdiaren data:** 2026/07/03

**Sarbide-esteka:**  
<https://egoitza.araba.eus/eu/>

**Erreferentziazko araudia:** Administrazio Kontseiluak 2026ko ekainaren 25eko erabakia.  
[https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/075/2026\\_075\\_01934\\_e.pdf](https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/075/2026_075_01934_e.pdf)

**Eragin eremuak:** Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirola

**Zenbatekoa:** 70.000,00 €

**Aurkezteko lehen eguna:** 2026/07/03

**Aurkezteko azken eguna:** 2026/07/31

**Aurrerakina:** Ez da zehaztu.

**Aurrerakinaren gehieneko %a:** Ez da zehaztu

**Gehieneko zenbatekoa:** Ez da zehaztu.

**Gutxieneko zenbatekoa:** 200,00 €

**Tramitazioa:** Puntuazioaren arabera banaketa.

## **Laburpena**

Gazteekin egiten diren proiektuak finantzatzea, tokiko erakundeek beren herrietako gazteek astialdiko hezkuntzaren eta gazteen parte-hartzearen arloan dituzten beharrianak betetzeko zerbitzuak edo programak sustatzeko aukera izan dezaten.

## **Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

1. Animazio sozio-kulturala.
2. Aisialdia eta denbora libre, berariaz gazteei zuzendutako ekipamendu ludiko-kulturaletan eta natura ingurunean edo espazio irekietan.
3. Gazteentzako informazioa, gazte informaziorako tokiko sareak.

4. Gazteek herriko gizarte eta kultura bizitzan parte-hartze aktiboa izan dezaten eta konpromisoa har dezaten sustatzea, gazteen parte-hartzerako tokiko sareak.

## **Jarduera-ildoak**

Ez da zehaztu

### **Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak**

Diruz lagunduko dira parte-hartzaileen aseguru gastuak, proiektua garatzeko dedikazio esklusiboa eta beharrezkoa duten langileen kontratazioa, garraioa eta jarduerak egiteko behar den material suntsikorra.

### **Gastuetarako aldi hautagarria**

Jarduerak 2026. urtean zehar etengabe egingo dira.